



**LEGAZPIKO
UDALA**



LEGAZPIKO UDALETXEAN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAN PAPER ETA DERIBATUAK EROSTEKO JARRAIBIDEAK

- 2018ko irailean egokitutakoa-

1. JARRAIBIDEEN HELBURUA

2002ko ekainaren 4an Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu zuen ‘Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020’ agirian, garapen iraunkorrean aurrera egiteko helburuak eta helmugak ezartzen dira. Bertan, 3. baldintza jasotzen da: Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea. Baldintza horrek, beraz, garapen iraunkorrean aurrera egiteko helburuarekin administrazioak, enpresek eta herritarrek elkarrekin jardutea eskatzen du.

Baldintza horretan, besteren artean, ondoko helburua bereizten da: irizpide ekologikoak kontuan hartuko dituen erosketa publikoko politika sustatzea. Jarduketa lerro hori jarraituz, Legazpiko Udalak ingurumen-irizpideak erabiliz papera eta deribatuak erosteko jarraibideak aurkezten ditu. Jarraibide horiek Legazpiko Udalarentzat eta bere erakunde autonomoentzat da.

Ingurumen-irizpideak ezartzeak gai horren kontsumoak gure ingurunean duen eragina murriztea du helburu, batik bat baso-baliabideen kontsumoarekin zerikusia duten eraginak. Administrazio Publikoek paper eta deribatu asko erabiltzen dute eta, ondorioz, horrek ingurumenean sortzen duen inpaktuaren arduradun dira.

Paperaren gainerako ezaugarriak departamentu bakoitzak erabakiko ditu bere beharren arabera eta ez dira, beraz, jarraibide hauetan sartuko.

2. IRISMENA ETA ERANTZUTZIKUNA BERE EZARPENEAN

Ezarrিতako jarraibideak berdin aplikatuko dira modu zentralizatuan egindako erosketetan eta Udal departamentu bakoitzak edo Erakunde Autonomoek kontratatuko dituzten hornidura-eskaeretan.

Modu berean, jarraibide berberak izango dira papera erosteko nahiz Udalak edo bere Erakunde Autonomoek argitaratuko dituzten argitalpenetarako edo materialetarako.

Papera eta paperezko produktuak:

- Papera bostehun orriko paketetan
- Kartazalak eta poltsak
- Planoetarako paper-bobina

Argitalpenak eta material-edizioak.

- Espediente-karpetak eta koadernoak:
- Liburuak, liburuxkak, katalogoak, aldizkariak eta antzeko argitalpenak
- Gonbidapenak, agurrak, kartelak, egutegiak, orriak bereiztekoak eta, oro har, paperez egindako edozein material

Jarraibide hauen arabera, papera eta paperezko produktuak erostean eta argitalpenetan eta bere materiala argitaratzerakoan ezinbestekoa izango da 3. puntuan ezarrিতako ingurumen-baldintzak betetzea.



3. BETE BEHARREKO INGURUMEN-BALDINTZAK

Bete beharreko ingurumen baldintzak, papera eta paperezko produktuei dagokienez.

1. Papera (bostehun orriko paketetan), kartazalak eta poltsak erostean bete beharreko baldintza bereziak:
 - a. Papera %100 birziklatua izango da eta kontsumo-ondoko paper-zuntza¹ %85 edo gehiago izango du.
 - b. Papera erabat klororik gabea izango da (TCF edo PCF)
 - c. Gutxienez %70 zurtasun-maila izango du, ISO 11475:2004 edo baliokidearen arabera.
 - d. Gramajea, gehienez 80 gr/metro karratuko.
 - e. 100 urte baino gehiagoko iraunkortasuna izango du, ISO 5630-1:1991, DIN 6738:1999 [LDK 24-85] edo baliokidearen arabera.
 - f. Inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun teknikoaren baldintzak beteko du, Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokidearen arabera.

Produktuak 'Aingeru Urdina' izeneko ingurumen-ziurtagiria baldin badu, hori nahikoa izango da bete beharreko baldintza guztiak betetzen dituela bermatuta gera dadin, zurtasun-mailarena izan ezik.

2. Planoetarako paper-bobinetarako baldintza bereziak:
 - a. Paperak ziurtatutako baso-ustiategi iraunkorretan (FSC, PEFC edo baliokidea) ateratako egur-zuntzaren %50 izango du gutxienez eta/edo zuntz birziklatuak.
 - b. Papera oinarrizko klororik gabea izango da (ECF).
 - c. Gramajea, ahal bada, gehienez 90 gr/metro karratuko.

Bete beharreko ingurumen-baldintzak, argitalpenetarako eta materiala editatzeko

- a. Papera %100 birziklatua izango da eta kontsumo-ondoko paper-zuntza %85 edo gehiago izango du.
- b. Papera erabat klororik gabea izango da (TCF edo PCF)
- c. Gutxienez %70 zurtasun-maila izango du, ISO 11475:2004 edo baliokidearen arabera
- d. Gramajea, gehienez 80 gr/metro karratuko, argitalpenen barnealderako
- e. Langileak eta herritarrak sentsibilizatzeko xedearekin, Udalak eta/edo bere Erakunde Autonomoek argitaratuko duten material oron honako mezua ageriko da: "Klororik gabe eta %100 paper birziklatuan inprimatua".
- f. Ezaugarri tekniko bereziak dituen paper bat izatea eskatzen duen edizioa bada eta paper birziklatuan egin ezin bada, paper horrek ziurtatutako baso-ustiategi iraunkorretan (FSC, PEFC edo baliokidea) ateratako egur-zuntzaren %50 izango du gutxienez.

¹ Kontsumo-ondoko paper-zuntzak modu hautakorrean jaso den paperetik datozenak dira, lantegiko paper-puntak baztertu egiten direlarik (aurre-kontsumoa).



- g. Produktuetan gehiegizko gramajea eman ez dadin, ondoko taulan adierazitako erreferentziak hartuko dira aintzat:

Erreferentzi taula	
	Gramajea
Bi orrikoak /Hiru orrikoak	90-115g – 130g Txartela: 200 gramoraino
Buletinak*	80-90g
Aldizkaria*	Barrualdea: 80-100g Kanpoaldea: 150-170g 16 orri arte eta gramaje bakarra: 90-115g
Gidak*, katalogoak*, liburuak*	Barrualdea: 80-90g – 130g Kanpoaldea: 170-300g
Artxibagailuak	Barrualdea: 75-100g Bereizgailuak: 200-250g
CDerako zorroak	200-300 g
Kartelak	100-140g

* Normalean, orri gutxiago direnean gramajea handiagoa izan ohi da.

4. BORONDATEZKO BALDINTZAK.

Hurrengo irizpideak betez ingurumena hobeto babestea lortuko dugu eta, ondorioz, handiagoa izango da ingurumen-iraunkortasunari egingo diogun ekarpena.

Borondatezko baldintza orokorrak:

- Produktuak material birziklatutan, itzulgarrian edo birziklagarrian egindako ontzietan aurkeztu. Ahal den neurrian, ez erabili behar ez diren ontziak.
- Produktua ontzi homogeneotan aurkeztu, haiek bereiztea eta birziklatzea errazagoa izan dadin.

Borondatezko baldintza bereziak planoetarako paper-bobinetarako:

- Ziurtatutako baso-ustiategi iraunkorretik (FSC, PEFC edo baliokidea) ateratako egur-zuntzaren portzentajea %50 baino gehiago izatea eta/edo zuntz birziklatuaren portzentaje handiagoa izatea.
- Papera erabat klororik gabea izatea (TCF edo PCF)

Argitalpenetarako eta materiala editatzeko borondatezko baldintza bereziak:

- Irudiak dituzten argitalpenetan eta argitaratuko diren materialetan paper estukatu erdi-matea erabili eta irudiak ez dituzten argitalpenetan eta argitaratuko diren materialetan offset papera erabili.
- Ingurumena kudeatzeko Sistemak dituen inprimategiaren ziurtagiria; ingurumenaren kudeaketa egokia bermatuko duen ziurtagiria (ISO 14001, EMAS, EKOSCAN edo antzekoa). (Soilik kontratu txikietan eta negoziatutako prozeduretan aplikagarria –ikus 5. Puntua: jarraitu beharreko prozedura–)



**LEGAZPIKO
UDALA**



5. JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Hurrengo lerroetan papera eta bere deribatuak erostean eta kontratatzean jarraitu beharreko urratsak azalduko ditugu, beti ere iraunkortasun-irizpideak aplikatzeari dagokionez:

- I. **Eskaintza-eskaera:** Udalak edo Erakunde Autonomoek jarraibide hauen arabera bete beharko dituzten baldintzen berri emango diete hornitzaileei.

Prozedura bera jarraituko da kontratatzeko agiriak egingo direnean.

Hala nahi duen departamentuak borondatezko baldintzak bete daitezela eska dezake eta horiek har ditzake kontuan aurrekontuak baloratzekoan.

- I. **Egiaztapenak:** Paper-ekoizlearen fitxa teknikoa eskatu behar da. Horrezaz gain, lehiatzaileak nahi adina ziurtagiri eta egiaztapen aurkez ditzake ezarritako baldintzak –bete beharrezkoak nahiz borondatezkoak (egongo balira)– betetzen dituela frogatzeko. Ingurumen-baldintzetako batzuk ekoetiketen bidez ziurta daitezke, ondorengo taulan zehazten diren kasuetan adibidez:

Etiketa eta Erakundea	Logo ofiziala	Lehengai	Zuriketa-prozesua	Ekoizpen-prozesua	Oharrak
Etiketa ekologiko europarra Europar Batasuna		Egur ziurtatua (gutxienez % 50), zuntz birziklatuak eta beste.	Ez da gas kloroa erabiltzea onartzen (gutxienez ECF)	Ingurumen-irizpideak betetzen dira: hondakin-uretan, CO2ren isurketetan, S eta NOx, energia-kontsumoan eta erregai fosiletan	Egurrari dagokionez, baso-kudeaketa iraunkorraren ziurtagiria. Ziurtatu gabeko materiala bada, bere legezotasuna eta trazabilitatea egiaztatuko da.
Aingeru Urdina Ingurumeneko Agentzia Federala eta Etiketen Institutu Alemana		Zuntzak % 100 birziklatuak	Ezin dira erabili zuritzaile kloratuak eta distira-emaile optikoak (TCF)	Ingurumen arloko irizpideak betetzen dira, produktu kimikoei dagokienez.	Iraunkortasun-arauak (100 urte baino gehiago) eta makinetan erabiltzeko arauak betetzen dira.
Zisne Nordikoa Kontseilu Nordikoa		Egur ziurtatua (gutxienez % 30), zuntz birziklatuak (gutxienez % 75) edo egur-zuntzen eta birziklatutakoen arteko nahasketa	Ez da gas kloroa erabiltzea onartzen (gutxienez ECF)	Ingurumen arloko irizpideak betetzen dira, hondakin-urei, CO2, S eta NOx isurpenei eta energia eta erregai fosilen kontsumoari dagokienez.	Etiketa hori duen papera TCF denean, zehazki adierazten da hori.

Zurezko zuntz birjina izango duten produktuei dagokienez, baso-ziurtagiriaren bidez balioetsi daiteke baso edo baso-sailetako kudeaketa iraunkorra. Hauek dira ekoetiketa ohikoetan:



FSC, Forest Stewardship Council

PEFC, Programme for the Endorsement of Forest Certification schemes



**LEGAZPIKO
UDALA**



Ekoetiketa biek ziurtatzen dute basoen kudeaketa iraunkorra baina ekoetiketa horiekin ziurtatzen den paperak zuntz birziklatua ere izan dezake, ondorengo tauletan zehazten denaren arabera:

FSC ekoetiketari dagokionez, 3 aukera daude:

Enbalajearen ageri diren esaldiak		FSC ziurtagiria duen egur-edukia	Birziklatutako zuntzaren edukia
FSC % 100	FSC % 100. Egoki kudeatutako basoetatik dator. <i>(FSC 100% From well managed forests)</i>	% 100	% 0
FSC MISTOA <i>(FSC MIX)</i>	Iturri arduratsuetatik dator <i>(From responsible sources)</i>	≥ % 70 ziurtatutako zuntzak eta/edo birziklatutakoak; gainerakoa kontrolatutako iturrietatik dator	
FSC BIRZIKLATUA <i>(FSC RECYCLED)</i>	FSC birziklatutako materialarekin egina <i>(FSC made from recycled material)</i>	% 0	% 100 (gutxienez, % 85 kontsumo-ondoko zuntza)

PEFC ekoetiketari dagokionez, 3 aukera daude:

Enbalajearen ageri diren esaldiak	PEFC ziurtagiria duen egur-edukia	Birziklatutako zuntzaren edukia
MODU IRAUNKORREAN KUDEATUTAKO BASOETATIK ETORRIA <i>(From sustainably managed forest)</i>	% 100	% 0
BASO-KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATUZ <i>(Promoting sustainable forest management)</i>	≥ % 70	% 0
BASO-KUDEAKETA IRAUNKORRA ETA BIRZIKLAPENA SUSTATUZ <i>(Promoting sustainable forest management & recycling)</i>	≥ % 70	

Ez dira baliagarriak izango inprimategiek, publizitate-enpresek eta bestelako bitartekariak egindako ziurtagiriak.

Material desberdinak paper-mota berarekin egiten badira, nahikoa izango da ziurtagiri bakarra aurkeztea; hori bai, kasu horretan, fakturan edo kontratuari dagokion agirian azaldu beharko da erabilitako paper-mota.

Azkenik esan behar dugu, gaur egungo araudiaren arabera, administrazio publikoan ezin dela produktu batek ekoetiketa zehatz bat izan dezala eskatu baina ekoetiketa horiek eskatutako ingurumen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeke erabil daitezke.

- II. **Erregistroa eta betetze-maila:** Urtero, jarraibide hauetan aipatzen diren material guztiei buruzko datuak eskatuko zaizkie udal departamentuei eta Erakunde Autonomoei; halaber, erosketa bakoitzari dagozkion fitxa teknikoak eta jarraibide hauen betetze-maila egiaztatzeke beharrezkoak diren bestelako agiriak eskatuko zaizkie.

Prozedura bera jarraituko da kontratatzeke agiriak egingo direnean. Modu berean, materiala hautatzeko prozesuan, kontratatzerakoan edo erosterakoan sor litezkeen zailtasunak jasoko dira.



6-. UDAL LANETAN PAPERAREN ERABILERA EGOKIA EGITEKO JOKABIDEAK

- Erabat beharrezkoak diren testuak edo testu-zatiak inprimatu bakarrik.
- Alde batetik bakarrik idatzita dauden edo inprimatutako orriak, oharrak hartzeko eta bestelako barne-gauzetarako erabili. Lan-mahaian eta, batik bat, inprimagailuen eta fotokopiagailuen ondoan papera biltzeko erretiluak jar daitezke, alde batetik bakarrik inprimatutako papera jasotzeko.
- Inprimatu aurretik zuzentzaile ortografikoa pasatu eta aldez aurretiko aurkezpena kontsultatu.
- Dokumentuak alde bietatik inprimatzeko edo fotokopiatzeko aukera ematen duten ekipu informatikoak izan (duplex funtzioa). Horrela, %50 murriz daiteke kontsumoa.
- Murrizte funtzioa erabiltzean (2 orritik 1era) papera aurrezte lortzen da (%75eraino, horrekin batera aldi bietatik inprimatzen badugu).
- Inprimatu ordeztu posta elektronikoa erabili eta, ahal denean, dokumentazioa eskaneatu eta posta elektronikoz bidali.
- Inprimagailuak, fotokopiagailuak eta faxak zentralizatu eta konpartitu, inprimatutako dokumentu-kopurua murriz dadin.
- Formatu elektronikoa faxak bidaltzeko eta jasotzeko aplikazio informatikoak eduki. Horrela, ez dago inprimatu beharrik faxak bidaltzeko eta ez dira inprimatutako jasotako eta gure interesekoak ez diren faxak.
- Paper-hondakinak bereizi eta edukiontzi urdinera bota.
- Liburuxka bat, kartel bat,.... inprimatu aurretik, komunikatzeko bestelako moduak aztertu.

7-. KOMUNIKAZIO- ETA ZABALKUNDE-EKINTZAK

- Udal langileak informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina egin: informazio- eta formazio-ekintzak izan daitezke eta/edo bestelako informazio-materiala bana daiteke. Banatutako materialaren bidez paperaren erosketa eta kontratazio berdeak ingurumenari dakartzkion onuren berri eman daiteke eta erakundearen ingurumen-hobekuntzan langileen esku-hartzeak duen garrantzia azpimarra daiteke.
- Ohiko hornitzaileei eta bestelako enpresei paperaren Erosketa eta Kontratazio Berdearen Politikaren berri eman; modu horretan, merkatuko eskaintza identifikatuko dugu eta jarraibide hauetan ezarritako ingurumen-baldintzak beteko duen papera eta paperezko produktuak erostea erraztuko da.
- Informazioa eta emaitzak, ingurumenaren ikuspegitik papera eta paperezko produktuak errespetatuko dituen erosketa eta kontratazioa egiteko interesa duten beste Udalekin eta Administrazioako erakunde publikoekin trukatu.